



OHIKO ERROREAK - IRAKURGAILUAK

IZENPEren ziurtagiriak gehienbat txartel kriptografikoko euskarrian jaulkitzen direnez gero, ziurtagiria erabiliko bada, beharrezkoa izango da txartel adimendunen irakurgailua instalatzea, SmartCard.

Irakurgailuaren gutxieneko zehaztapenak edo ezaugarri teknikoak:

Txartel-irakurgailu estandarra izatea, PC/SC bateragarria, behar bezala konektatua, instalatua eta konfiguratua.


Irakurgailua PCra konektatu beharko da, eta txartel adimendunen irakurgailua instalatu beharko da.



1.- Txartel-irakurgailuaren instalazioa:

Irakurgailua zure sisteman lehen aldiz konektatzean, segur aski, sistemak berak beste HARDWARE bat konektatu dela hautemango du. Sistema eragilearen bertsioaren arabera:

Windows Xp bertsioan, morroiak beharrezko driver-a instalatzen lagunduko dizu.

Windows Vista edo Windows 7 bertsioetan, gailuaren kontrolatzailea automatikoki instalatuko da irakurgailua USB CCID bat denean.





2.- Irakurgailuaren funtzionamendua egiaztatzea

Irakurgailua konektatu eta instalatu ostean, irakurgailuaren led-ak dir-dir egin behar du, eta txartela irakurgailuan sartzean, led-ak etengabe izan beharko du argia piztuta.

Led-ak dir-dir egiteak adieraziko du irakurgailua ondo konektatuta dagoela eta ordenagailutik elikadura elektronikoa jasotzen duela. Gainera, txartela sartzen dugunean kontaktu-txipa hautematen duela ematen du aditzera.


1. aukera:

Gailu-kudeatzailearen gainean sakatu –zure PCaren behealdean eta eskuinaldean, irudian ikus daitekeen bezalaxe–.



Hauta ezazu HARDWAREA KENDU aukera.

Honako pantaila honen antzeko pantaila bat bistaratuko da, eta, bertan, PCra konektatutako kanpoko gailuak ikusiko ditugu.



2. aukera:

Gailu-kudeatzailean txartel adimendunen irakurgailuaren funtzionamendu zuzena egiaztatzeko.

WINDOWS XP:


Hasi → Konfigurazioa → Kontrol-panela → Sistema → Hardwarea → Gailu-kudeatzailea

WINDOWS VISTA eta WINDOWS 7

Hasi → Konfigurazioa → Kontrol-panela → Sistema eta mantentze-lanak → Gailu-kudeatzailea

Zabal itzazu “Txartel adimendunen irakurgailuak” aukera, “+” sinboloaren gainean sakatuta, eta egiaztatu ezazu bertan agertzen dela “Smart. irakurgailua” edo “USB Smart ”

Gailu-kudeatzailean, bila ezazu eguneratu nahi duzun gailua, eta, gero, egin ezazu klik bikoitza gailuaren izenaren gainean. Gailu-kudeatzailea:




Periferikoen zerrendan bila ezazu “Txartel adimendunen irakurgailuak” aukera eta zabal ezazu dagokion adarra eskuineko “+” zeinuan sakatuta.

Aukera ezazu gailu zehatza:


Saguaren eskuineko botoian egin ezazu klik → Propietateak


“Gailu hau behar bezala dabil” mezua agertu beharko litzateke.



3.- Irakurgailuaren instalazio okerra:

Instalazioa ez da behar bezala osatu eta gailu-kudeatzailera sartzean, gailu zehatz horrek harridura marka bat du edo behar bezala funtzionatzen ez duela adierazten du.





Instalaziorako CDrik ez baduzu, deskarga itzazu driver-ak fabrikatzailearen webgunetik.

Har ezazu kontuan IZENPEren web-orrian IZENPEk gaur egun banatzen dituen irakurgailuen driver-ak aurki ditzakezula.


- IZENPEk banatzen dituen irakurgailuen instalazioa:

[PC TWIN Reader](#)

[LTC-31](#)

[PCT-combi](#)

Kontrolatzailea berriro instalatzeko edo kontrolatzailea eguneratzeko aukeren bidez, hardware berria instalatzeko morroira eramaten zaitu.



4.- Irakurgailuen bateraezintasun-errorea

IZENPEren gaur egungo softwarearen, txartelaren hardwarearen eta zenbait motatako irakurgailuen artean bateraezintasun-arazoak daudela hauteman da.

Honako mota hauetako irakurgailuetan hauteman ditugu gorabeherak:

Sveon SCT 010 Smart Card

WOXTER (SMART CARD READER COMBO)

Sinnix std 200 0

Connection n \$c

GemPlus Serie